

Purón ibaiaren haitzarteak



Ingurumen-garrantzia

Anderejo mendilerroan bederatzehun eta hirurogeita hamar metrotara jaiotzen den Purón ibaia haraneko ibai-korridorarik inportanteena da eta Ebro ibaian bat egin baino lehen ibilgua aldatzen du Artzena mendilerroko kareharri eta tupen zehar, haitzarte estu bat utzita. Arabako tartea oso-osorik dago 1992an sortutako Valderejo Parke Naturalean. Horrek sai arreen (*Gyps fulvus*) kolonia aberatsa du eta, halaber, zuhaitz mota ugari: erkametzak, arteak, pagoak eta ametzak. Paisaia honetan Purón ibaia

da protagonista behinena. Ibaiak ibarreko landaredi oparoa du, kalitate ekologiko handikoa eta anitza: haltzak, lizarrak, sahatsak eta zenbait zumar. Interes handiko hegaztiak ere baditu: sai zuria (*Neophron percnopterus*), eguzki-arranoa (*Aquila chrysaetos*), aztorea (*Accipiter gentilis*), zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*) eta urubia (*Strix aluco*). Bestalde, narrastiak: aspis sugegorria (*Vipera aspis*) edo horma-sugandila (*Podarcis muralis*) ikus daitezke

haitzarteetan. Anfibioen artean: arrabioa (*Salamandra salamandra*), baso-igel gorria (*Rana temporaria*), uhandre palmaturia (*Triturus helveticus*); ugaztun andana: orkatza (*Capreolus capreolus*), basurdea (*Sus scrofa*), basa-katua (*Felis silvestris*) eta lepazuria (*Martes foina*). Ez dugu ahaztu behar ur garden eta oxigenatuei lotutako biztanle hau: ur-zozoa (*Cinclus cinclus*). Inondik ere, paisaia, kultura eta ingurumen aldetik interes handiko ibilbidea dugu.



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 7,7 km



3 ordu



Autoz badago joaterik
Lalastraraino
San Zadorniletik edo
Villafratik



Udalerrria:

Valdegovía/ Gaubea

Hurbileko herria:

Lalastera, Ribera



Ibaia:

Purón



Arrisku faktore bat baino
gehiago dago



914 m

↗ 114 m



602 m

↘ 438 m



Purón ibaiaren haitzartea



Non dagoen eta nola heldu

Purón ibaiaren haitzartea Arabako Lurralde Historikoaren mendebaldeko muturrean dago, Arabako Ibarrek eskualdean, Gaubea udalerriko Lalastra herriaren ondoan. Valderejo Parke Naturalaren barruan dago, Arabaren eta Burgosen arteko mugan.

Hasiera Lalastra herri arabarretik egin dezakegu A-4338 errepidetik, San Millan de San Zadornil Burgosko herritik hartuta. Horrela lau kilometro gutxiago egingo ditugu.

Erreferentzia puntua Villanueva de Valdegoviatik izango da. Bertatik hasten da abiapuntura eramango gaituen ongi seinatutako errepidea.

Agian, ibiltaritza zaleen ibai ibilbiderik interesgarriena dugu. Gainera, Euskal Herrian hobekien kontserbatutako ibaia izateaz gain, Artzena mendilerroaren kareharrizko erliebez oragarria eta EAEko ibarrik ederrenetakoa gozatu ahal izango ditugu.

Lalastratik hasita, bertako aparkalekuan utziko dugu ibilgailua elizaren ondoan, eta ondoren Valderejo Parke Naturaleko interpretazio zentzora hurbilduko gara informazio bila.

Bertatik, Errege Kalea pasa, eta landak eta mendi inguruak zeharkatzen dituzten bidexketan hiru koma sei kilometro egin eta gero Erribera herri hustura helduko gara.

Han elizak baino ez dirau zutik.

Jarraitu beharreko bidea ongi seinatutako dago.

Guk "haitzarte-bideari" jarraituko diogu ibaian ezkerretara harturik.

600 bat metro belardi baten zehar egin eta gero, bidea estutzen den baso batean sartuko gara.

Luze gabe, Purón ibaiko uren hotsak entzunez sartuko gara arroilaren alderik estuenean.

Zortziehun bat metro eta hamabost minutu inguru eginda, haitzetan iltzaturiko pasabide metaliko batera. Bertatik ikus daiteke ibilguko osinetako bat. Berau da interes gorenko ibai tartea.

Aurrerago, egurrezko zubitik arroilaren edertasuna eta magia gozatu ahal izango ditugu.

Izan ere, bertatik pasatzen ziren IX. mendean Gaztelako lautada birpopulatzen joandako lehendabiziko kristauak.

Arroilaren tarterik itxienean, kareharrizko hormatzarren artean, bi kilometroko pista batetik jarraitu ahal dugu Herran herriraino, Burgoseko Tobalina haranean.

Herranera heldu baino lehen, ezkerretara, atsedene-eremu bat dugu mahai eta guzti. Ibilbidearen amaiera herriko sarreran dagoen pasabide-zubia izango da.

Toki beretik egingo dugu itzulbidea.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina euri sasoian eta elurrak urtean Purón ibaiak hartzen duen emariak emango digu aukera ur-jauziak gozatzeko, batez ere, Riberaren eta Herran herriaren arteko tartean.

Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX



Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:





Wikiloc



Purón ibaiaren haitzartea



Purón ibaiaren haitzartea



Purón ibaiaren haitzartea

